

ZAINZARAKO EUSKAL SISTEMA PUBLIKOA

Adina, gaixotasuna edo ezintasuna dela eta mendekotasuneko egoeran egon direnei laguntza eta harrera ematea emakumeen lana izan da betidanik, eta horren trukean ez dute inoiz inolako saririk jaso.

Gure gaur egungo gizartean ere, badirudi etxe bakoitzean emakume bat egon behar dela etxekoei behar dutenean laguntzeko. Hori dela eta, emakumeek bidegurutze moduko bat daukate aurretik: ordaindutako lana utzi, edo lanaldi bikoitza hartu, edo etxeko lanak egiteko beste emakume bat baldintza kaskarretan kontratatu (pertsonek zainzaileen %84 emakumeak dira).

Bestalde, zainketak behar dituzten pertsonak (gehienak ere emakumeak, duten bizitza luzeagoa dela-eta) inguruko laguntzaren menpean daude, edo bizitzan bildutako aurrezkiak kontura merkatuan eros ditzaketen laguntza-zerbitzuen menpean. Hori horrela, ez dira oso apartekoak babesik gabe geratzen direnak.

Gizarte-arazo horiei berehala heldu behar zaie modu orokorrean. Zainduta egoteko eskubidea eskubide unibertsala da, eta ez salerosketa bat. Ezin da negoziarik egin, ez bada kalitate txarra eskaintzen, edo erabiltzaileei gehiegizko prezioak kobratzen, edo zainzaileak zapaltzen.

Mendekotasuneko egoeran daudenei laguntzeko zerbitzua Euskal Sistema Publikoan sartzeko erreibindikazioa egiten dugu, den-denok daukagu-eta zainketak jasotzeko eskubidea. Zerbitzuaren printzipioak honako hauek izango lirateke:

- ♀ **Zerbitzu publikoa eta unibertsala** izatea; zergaz aritzeko bestelako neurrien partez, edo zuzeneko dirulaguntzen orde, azpienplegua sustatzen baitute, eta diru publikoa esku pribatuetara aldatzen baitute.
- ♀ **Zerbitzuak nahikoak, anitzak eta kalitatezkoak** izango dira; norberak duen menpekotasun mailari eta tipologiari moldatzeko modukoa.
- ♀ **Zainketak behar dituzten pertsonen ongizate osoa** emateko moduan antolatuko dira zerbitzuak (autonomia bultzatu, beharrian afektibo-sozialak bete...)
- ♀ Zerbitzu horretan sortuko den **enplegua lan-baldintza duinetan emango da.**
- ♀ **Lanbide-titulazioaren ondorioetarako, horrelako lanak lehenago eman izana kontuan hartuko da.**
- ♀ **Lan, kultura, gizarte eta hezkuntzaren arloetan zabalkunde-neurriak** sustatuko dira **etxe-laguntzako lana ezkututik agerira ateratzeko, eta baloratua izateko.** Bestalde, **gizonek zainketa-lanetan parte hartzeko konpromisoa** ere, dagokien heinean, sustatu behar da; eta emakumeentzako esparru itxia delako irudi hori, gure kultura hain erroturik egon dena, betiko erazi.

Ez da berdintasunik egongo emakumeak zaintzeko beharri loturik jarraitzen dugun artean